



PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

Kontratua: SERVICIO DE ASISTENCIA TÉCNICA PARA EL MANTENIMIENTO Y
DESARROLLO DEL SISTEMA DE GESTIÓN AMBIENTAL DEL CONSORCIO DE
AGUAS BILBAO BIZKAIA

Zuzendariordetza kudeatzailea: Subdirección de Sostenibilidad, Tecnología e Innovación

AURKIBIDEA

1.	KONTRATUAREN XEDEA	2
2.	EGIN BEHAR DIREN LANEN DESKRIAPENA	2
3.	BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK	4
4.	LANGILEAK ORDEZKATZEA	6



1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea zera da: laguntza teknikoa ematea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) mantentzeko eta garatzeko lanak egiteko, ISO 14001 arauaren arabera ziurtatuta.

2. EGIN BEHAR DIREN LANEN DESKRIBAPENA

Laguntza teknikoaren lan hauek kontratatu behar dira:

1) IKSren informazio dokumentatua garatzea eta mantentzea

IKSren dokumentazioa berrikustea, aldi behin eguneratzea eta administratzea, erakundearen behar aldakorretara egokitzeko, UNIFIKAS aplikazio korporatiboa erabiliz.

2) Arriskuei eta aukerei heltzeko ekintzak garatzea

Arriskuei eta aukerei aurre egiteko ekintzak identifikatzen, planifikatzen eta garatzen laguntzea.

3) Ingurumen-alderdiak ebaluatzea

BBUPen jardueraren ondoriozko ingurumen-alderdiak urtero ebaluatzeko behar den informazioa biltzea.

4) Barne-auditoria

Ingurumen Kudeaketa Sistemaren urteko barne-auditoria egitea.

5) Kanpoko auditoria eta Zuzendaritzak berrikustea

Sistemaren Zuzendaritzak berrikuspena prestatzen laguntzea IKSren arduradunari.

Kontratuaren arduradunari eta prozesuetako ingurumen-koordinatzaileei laguntzea IKSren kanpo-auditorietan, eta ekintza zuzentzaileen plana egiten laguntzea.

IKSren arduradunari laguntzea auditorietatik, ikuskapenetatik edo bestelakoetatik datozen desadostasunak, oharra eta hobetzeko aukerak erregistratzen eta tratatzen, UNIFIKAS aplikazio korporatiboa erabiliz.

6) Legea betetzen dela egiaztatzea

BBUPen prozesu eta jardura guztietan legea betetzen dela egiaztatzea, ECOGESTOR web-zerbitzuaren bidez, eta aplikazio horretan mantentzea eta eguneratzea egiaztapena gauzatzeko beharrezkoak diren datuak eta erregistroak.

7) Ingurumen-baimenak izapidetzea



IKSren arduradunarekin elkarlanean aritzea ingurumen-baimen eta -jakinarazpenak izapidetzeko (ingurumen-baimen bakarrak, isurketa-baimenak, atmosfera kutsa dezaketen jardueren baimenak, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten kokalekuetan lurrak mugitzeko baimenak, etab.) eta lehendik daudenak berrikusi eta mantentzeko.

8) Ingurumen-datuen aldizkako txostena

Ingurumen-datuak biltzea eta behar diren kalkuluak egitea, Galindo eta Arriandi hondakin-uren araztegi-tako ingurumen-informazioa (kutsatzaileen transferentzia) lantzeko eta ingurumen-organo eskudunari bidaltzeko (unean-unean indarrean dagoen prozedura elektronikoaren bidez), PRTR erregistroan sar dezan.

BBUPi buruzko datu guztien mantentze-lanak eta eguneratzeak egitea, baita INGURUNET sisteman (edo baliokidean) ingurumen-datuen transakzioak gainbegiratzeko ere, baimenak eta urteko aitortpenak izapidetzeko barne, hala nola HUAko lohien kudeaketarena eta PCBa duten gailuen deklarazioarena.

9) Hondakin-transferentzien jarraipena eta dokumentu-kontrola

BBUPeko zentro guztietako hondakinen lagapenak, obrak barne, behar bezala egiten direla ziurtatzea eta egiaztatzea. Lagapenen arduradunari aholkuak ematea eta haiekin lankidetzan aritzea, hondakinen kudeaketa indarrean dagoen araudira egokitu dadin.

Informazioa eta dokumentuak BBUPen hondakinen datuak kudeatzeko sisteman (ZERO) behar bezala artxibatzen direla ziurtatzea.

BBUPen jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinak kudeatzeko behar diren dokumentuak eguneratzea, eta hondakin berriak kudeatzeko behar direnak sortzea.

10) Obra eta proiektuen ingurumen kudeaketa

BBUPen (Ingurumen Izapidetzaren Fitxa) proiektuen aurretiazko ingurumen-azterketa egitea, bizi-zikloan zehar beharrezkoa duten ingurumen-tramitazioa definitzeko, bai eta ingurumen-inpaktu nagusiak identifikatzeko ere.

Laguntzea berrikusten BBUPek idazten dituen proiektuen ingurumen-dokumentazioa (ingurumen-inpaktuaren azterketak, eraikuntzako eta eraisketako hondakinak kudeatzeko azterlanak, azterlan espezifikoak, etab.) eta BBUPek exekutatzen dituen obren ingurumen-jarraipena egiten.

Proiektuen ingurumen-berrikuspenetik eta obren ingurumen-jarraipenetik sortutako dokumentazioaren kudeaketa koordinatzea.

11) Ingurumen-jarraipeneko programak betetzea

BBUPen prozesu eta jarduera bakoitzean operatibo dauden ingurumen-jarraipeneko programak gainbegiratzeko eta koordinatzeko [Ingurumen Lankidetzako Erakundeak atmosferara egindako isurketen



aldizkako neurketa egitea; Emisioak Etengabe Neurtzeko Sistemaren (EENS) kalibrazioa; lehenetasunezko substantzien kanpoko analisia; zaraten neurketak; hondakinen kontrola, eta proiektu eta obren ingurumen-alderdiak].

Ingurumen-jarraipeneko programen ondoriozko emaitzak aztertzea, ezarritako mugak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzea, dauden desadostasunak identifikatzea eta gure ingurumen-alderdiak hobeto kontrolatzea ahalbidetzen duten neurriak proposatzea.

Behar diren neurriak proposatzea BBUPen unitateetan erabilitako datuak kudeatzeko sistemak aski izan daitezen Administrazioak eskatutako ingurumen-informazioa lortzeko edo BBUPen ingurumen-politika betetzeko beharrezkoa den ingurumen-informazioa lortzeko.

Segurtasun-aholkulariarekin lankidetzan aritzea BBUPek salgai arriskutsu gisa sailkatutako hondakinen zamari eta garraioari lotutako ingurumen-alderdietan.

Ingurumen-gorabeherak ikertzen eta ingurumen-larrialdietako simulazioak egiten laguntzea BBUPen zentroetan.

12) Azterlanak eta planak egitea

Ingurumen-azterketak eta -planak egiten laguntzea (hondakinak kudeatzea, klima-aldaketara egokitzea, karbono-aztarna kalkulatzeko, etab.).

13) Komunikazioa eta prestakuntza

Informazio-edukiak garatzea eta ingurumen-prestakuntza ematea BBUPeko langileei.

Alderdi interesdunei ingurumen-arloko lege-eskakizunen berri ematea.

Beharrezkoa den informazioa biltzea eta barneko nahiz kanpoko ingurumen-dibulgazioko dokumentuak egiten laguntzea (urteko ingurumen-adierazpena eta aldizkako ingurumen-buletinak).

3. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

3.- 1 Giza baliabideak

Lizitatzailleek esperientziadun lantalde bat eskaini beharko dute, kontratua sinatzen denetik aurrera lanak hasteko behar bezain koordinatua eta prestatua.

Kontratatutako behar bezala zehaztuko du lantaldearen osaera bere eskaintzan.

Lanak egiteko, gutxienez, giza baliabide hauek beharko dira:

- Goi-mailako titulazioa duten hiru teknikarik osatutako lantaldea (adar teknikoetan: zientziak edo ingeniarietako); haren kideek ingurumen-kudeaketari eta ISO:14.001 arauari buruzko ezagutzak edukiko dituzte. Zehazki, 2. atalean zehaztutako eginkizunen ezagutzak egiaztatuta beharko dituzte.
- Lantaldean, teknikarietako batek koordinatzaile gisa jardungo du; enpresa adjudikaziodunaren eta BBUPen arteko bitartekaria izango da, eta lantaldea antolatzeaz arduratuko da. Era berean,



behar diren kontsultak eta lanak egingo ditu, agindutako lanetan sortzen diren zalantzak eta arazoak konpontzeko.

- Teknikari koordinatzaileak gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatua izan beharko du kontratu honen xedearen antzeko lanetan.
- Kontratuari esleitutako 3 teknikariet indarreko gidabaimena izan beharko dute.

Bestalde, eta urtero IKSren barne-auditoria egiteko, lizitatzailerak auditore-talde osagarri bat izan beharko du, lantalde iraunkorrarekin loturarik gabekoa, behar adina ezagutza eta kualifikazioekin. BBUPen IKSren irismena bere ziurtagirian kontsulta daiteke:

https://www.consortiodeaguas.eus/html/pdf/AENOR_14001.pdf

Gainera, adjudikaziodunak kontratuari dedikazio osoa eta eskusiboa dion giza talde iraunkorra bermatu beharko du, eta eskaintako prestakuntza eta esperientzia duten teknikariet egin beharko dituzte hasierako taldekideen bajagatik eta oporregatik egin beharreko ordezkapenak.

3.2 Baliabide materialak

3.2.1 Ekipo informatikoak

Adjudikaziodunak bulegoko ekipamendu tekniko eta material propioak, etengabe eta eskusiboki eduki beharko ditu kontratua hasten denetik.

Kontratu honen xede den zerbitzua behar bezala emateko, BBUPen zerbitzarietarako konexio segurua egon beharko da, partekatutako direktorioetara sartzeko. Lanak urrunetik egiteko, BBUPek proiektuaren adjudikaziodunaren esku jarriko du bere VPN konexio-azpiegitura. Azpiegitura horri esker, enpresek Internet bidezko konexio segurua ezarriko dute BBUPekin, eta zerbitzua emateko behar diren barne-baliabideak eskuratu ahalko dituzte.

Kontratuaren adjudikaziodunaren ardura izango da zerbitzua emateko konektatzen diren pertsonet behar diren baliabideak ematea BBUPekin VPN konexio hori ezartzeko, eta, gutxienez, honako baliabide hauek:

1. Hiru (3) ordenagailu eramangarri, arin lan egiteko eta BBUPen VPN azpiegiturara arazorik gabe konektatzeko behar adinako hardware- eta software-prestazioekin (jatorrizko lizentziekin).
2. Windows 11 sistema eragilea Profesionala (jatorrizko lizentziarekin), fabrikatzailearen azken bertsioetara eguneratuta; gainera, fabrikatzaileak gomendatutako segurtasun-adabakiak aplikatu behar dira beti.
3. Antibirus-programa, jatorrizko lizentziarekin, eguneratua eta ekipoetan aldizka exekutatze programatua.
4. Lankidetza-software eguneratua eta jatorrizko lizentziekin; besteak beste, ahalbidetu behar du BBUPeko langileekin informazioa partekatzea eta aldizkako bideokonferentziak egitea. Microsoft Teams da BBUPeko langileek funtzio horietarako gaur egun erabiltzen duten lankidetza-tresna. Kontratua indarrean dagoen bitartean tresna aldatzen bada, BBUPek izendatutako tresna berrira egokitu beharko da kontratista.
5. Internetarako konexio azkarra eta egonkorra, BBUPen VPN azpiegiturara etenik gabe konektatzeko aukera egon dadin.

Gainera, zerbitzua behar bezala emateko, ezinbestekoa izango da hiru ordenagailuek gutxienez software hau (edo baliokidea) edukitzea:

- Izenpe softwarea sinadura digitalerako (eskuragarri dagoen azken bertsio egonkorra).
- Office profesionala (eskuragarri dagoen azken bertsio egonkorra) edo Office 365.
- Acrobat Professional (eskuragarri dagoen azken bertsio egonkorra).
- QGIS (eskuragarri dagoen azken bertsio egonkorra).
- DWG TrueView (eskuragarri dagoen azken bertsio egonkorra).
- 7-Zip File Manager (eskuragarri dagoen azken bertsio egonkorra).

1.2.2. Beste baliabide material batzuk

Lantaldeko kide bakoitzak ziurtagiri digitala izan beharko du, IZENPEk edo beste edozein erakunde ziurtatzaile homologatuk emandakoa; software formatuan egongo da, eta ordenagailuan behar bezala instalatuta.

Halaber, 3 telefono mugikor (Smartphone) edukiko dituzte, Internetarako etengabeko konexioarekin, baita wifi sarrerik ez dagoenean ere, eta Android sistema eragilearekin (14. bertsioa edo goragokoa).

Bestalde, adjudikaziodunak ibilgailu korporatibo bat jarriko du lantaldearen esku, BBUPEko zentro operatiboetara joateko, baita obretara ere.

Era berean, adjudikaziodunak jarduera garatzeko beharrezkoak diren NBEak (norbera babesteko ekipamenduak) eman beharko dizkie lantaldeko kideei, kontuan hartuta beharrezkoa izango dela industria-zentroak eta obrak bisitatzea.

Bitarteko guztien kostua zeharkako kostutzat hartuko da, eta lizitazio-prezioetan jasanarazi beharko da.

4. LANGILEAK ORDEZKATZEA

Hasieran aurreikusitako lantaldearen osaera aldatzeko aukera egongo da, behar bezala justifikatuz gero, laguntza teknikoa ematen den bitartean; ordezkoek hasieran proposatutako titulazioa edukiko dute gutxienez, eta kontratu-arduradunaren oniritzia beharko dute.

Kontratuaren arduradunak eskubidea izango du adjudikaziodunari eskatzeko, aldez aurretik idatziz justifikatuta, lantaldea osatzen duen edozein pertsona ordeztu dezan, dela haren gaitasun falta agerikoa delako, dela kondizio-agiri honetan ezarritako kondizioen bat betetzen ez delako, dela lantaldearen funtzionamenduari eta/edo BBUPen lan-dinamikari egokitzen ez zaiolako. Adjudikaziodunak 15 egun naturaleko epea izango du ordezkapena egiteko, BBUPEk jakinarazpena egiten duenetik zenbatzen hasita.

Adjudikaziodunaren ekimenez egiten den edozein ordezkapen behar bezala justifikatu beharko da, eta kontratuaren arduradunak baimendu beharko du aldez aurretik. Kasu horretan, gutxienez 15 egun naturalean jardungo dute elkarrekin atera eta sartu beharreko langileek, lantaldeak eraginkortasunik gal ez dezan. Batera aritzea ezinezkoa denean (langileak berak lan-harremana eten nahi izan duelako eta 15 egun lehenago bakarrik jakinarazi duelako), adjudikaziodunak behar den esperientzia duen beste langile bat eskaini beharko du, eta lanean hasi beharko du aurreko langileak uzten duen lehen egunetik bertatik.



Bilbon, sinatzen den egunean

Ontzat emana

<cabb_firma_rcp>

<cabb_firma_sd>